

Elkarretaratzea gaur, lan istripuz hildako lizartzarra gogoan

Aurten lanean hildako bigarrena izan da, eta pasa den urtean 71 pertsona hil zirela gogoratu du LABek; erakundeek ez dituztela neurriak hartzen salatu du sindikatuak // 5

Tolosarren «beharrei» erantzuteko lanean segiko du EH Bilduk

Pandemiaren ondorioei aurre egiteko «tolosarrentzat egokiak diren» proposamenak herritarrekin eta eragileekin elkarlanean lantzeko asmoa azaldu dute // 2

Bigarren greba eguna izango dute gaur, Haurreskolak partzuergoan

Doakotasuna, lan hitzarmen berria negoziatzea eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sisteman integratzea dira, besteak beste, eskaerak // 7

«Emozioak zainduz maskaren kaltea ekidin daiteke»

**ESTITXU
URIBEETXEBERRIA
FISIOTERAPEUTA**

Altzoan guraso elkarteak antolatuta, arnasketa ikastaroa eskainiko du bihar, Tolosan // 3



MOTORRA HARD ENDUROAN BIKAIN

Espainiako Hard Enduro Kopako lehen proba jokatu dute asteburuan, eta eskualdeko lau moto gidarik hartu dute parte; maila nagusian, Josu Artola amezketarrak hirugarren egin du, eta Alberto Aranburu tolosarrak seigarren // 7

MAIA ENIRURETAGOENA

matrikulazio epea
urtarrilak 18-29

www.herrikide.eus

ETORRI
GU
EZAGUTZERA

herrikide.
ikastetxea

**ZURE
ESKOLA
IZAN
NAHI
DUGU**

haur-lehen hezkuntza 943 65 10 27
bigarren hezkuntza 943 67 03 11
herrikide@herrikide.eus





Pasaban enpresako langileek lantegiaren kanpoaldean jarritako kartela. I.U.

Hitzarmen berririk gabe daude Pasaban enpresan

Lan-baldintzak garrantzia galtzen ari direla salatzeaz gain, orain arte izan duten hitzarmena osorik mantentzea eta betetzea eskatzen dute langileek

Josu Artutxa Dorronsoro

2019ko abenduan amaitu zen Tolosako Pasaban SA enpresako langileek arduradunekin azken aldiz sinatu zuten lan-hitzarmena. Orduz geroztik, langileek ez dute enpresa zuzendaritzarekin adostasun batera iristeko modurik ikusi. «Azken urtean batez ere, ez da inongo aurrerapausorik eman langileen eskubide eta enpresa irabazien banaketan. Hori gutxi ez, eta aspalditik lortu eta finkatu diren baldintzak kentzeko intentzioa ere azaldu du gerentzia berriak», aipatu dute langileek.

Hori dela eta, orain arte izan duten lan-hitzarmena berritu, eta enpresak aurrerapausoak ematea eskatzen du langile batzordeak. «Laburbilduz, solda-

tak igotzea, hitzarmenaren ultra-aktibitate mugagabea, hitzarmena ez aplikatzearen aurkako klausulak eta egungo hitzarmenaren jasota dauden eta betetzen ez diren klausulak betetzea eskatzen dugu».

Hitzarmenaz gain, bestelako gaiak ere landu behar direla uste dute. «Besteak beste, atzerrira bidaiatzen dutenen egoera, COVID-19a eta bere ondorioak edota langile bakoitzaren kategoria profesionala, kontuan izan beharreko gaiak dira. Izan ere, badirudi hemen garrantzia duen bakarra enpresaren onura dela».

Etorkizunera begira, enpresaren jarduera bide onetik doala gogorarazi dute langile batzordetik. «2020an irabaziak izan ditu, eta datozen bi urteetarako are hobeak dira aurreikuspenak, langileek beren jarduna egoki egin duten seinale».

1928an sortu zen Tolosako Pasaban SA enpresa. Paperaren eta kartoiaren akabera-prozesuetarako, sektore honen industriari soluzioak nahiz makina pertsonalizatuak eta kalitate handiak ematea du helburu.

2021 urterako bide orria aurkeztu du Tolosako EH Bilduk



Aitana Amondarain eta Andu Martinez de Rituerto, Tolosako EH Bilduren egoitzan eskaini zuten prentsurrekoan. J. A.

Pandemiaren ondorioei aurre egiteko, «tolosarentzat egokiak diren» neurriak eta proposamenak herritarrekin eta eragileekin elkarlanean lantzeko asmoa azaldu dute

Josu Artutxa Dorronsoro

Orain arteko lan ildoekin jarraituz, pandemiaren ondorio sozio-ekonomikoei aurre egitea izango da Tolosako EH Bilduren helburu nagusia, 2021ean. Bide horretan, udal aurrekontua osatzeko eta aberasteko saiakerari eutsi nahi dio, «beste behin gobernuari akordiorako eskua luzatuta, 2020an egin bezala».

Tolosaren beharrei erantzuteko lanean jarraituko dutela dio Aitana Amondarainek. «Oposizioan egonda ere, herritarrekin eta eragileekin adostutako ideiak udal gobernuari proposatzen jarraituko dugu, herritarren eskutik lan egiten duen udalgingintzan sinesten dugulako».

Ondorio horiei aurre egiteko, neurri zehatzak proposatu dituztela diote. 2021eko aurrekontuak dituen murrizketak ezabatu eta «lehentasunezkoak» diren hainbat alor indartu nahi dituztela ere aipatu dute.

MAIATZEKO PLANA OINARRI

Pandemiaren bilakaerari erantzuteko ibilbide-orria zehaztuta du EH Bilduk. Aurreko urteko maiatzean aurkeztu zuen ondo-

rio sozioekonomikoei aurre egiteko plana, 40 neurri biltzen zituena. «Udal gobernuari ere aurkeztu genion, baina orain artean ez du aintzat hartu».

Kontuak kontu, oposizioako ordezkariak, 2021ean ere, bide beretik jarraituko dutela diote. «Ziur gaude neurriak beharrezkoak direla. Proposamen bideragarriak, landuak, kontrastatuak eta arrazoituak jarri ditugu mahai gainean».

ALDEBAKARTASUNA AURREAN

Azken hilabeteetan, egitasmo asko landu eta proposatu dituztela gaineratu dute. Hala ere, proposamen guztiak alboratzea eta bakan batzuk aintzat hartzea egotzi diote udal gobernuari. «Egindako proposamen guztien aurrean, esku bateko hatzekin kontatzen dira onartutakoak».

Oposizioak azaldu duenez, udal gobernuak ez ditu euren proposamenak onartzen. «Badi-rudi proposamen zentzudunak izanda ere, EH Bildurenak izate-agatik baztertzen direla. Argi dugu elkarlanean pausoak emateko, proposamenean jarri behar dela arreta, eta ez proposamena egin duen talde politikoan. Ga-

rrantzitsuena ez da norekin, zertarako baizik».

OPOSIZIOARI, OPOSIZIOA

Oposiziotik «lan arduratsua» egi-ten ari direla azaldu du Andu Martinez de Rituertok, «kritika hutsean geratu beharrean, proposamenak eta planak mahai-gainean jarritz. Horregatik, ulergaitza zaigu udal gobernuak gure lana begi txarrez ikustea. Proposamen landuak egin ditugu, errealistak, baina elkarlanean lan egin beharrean, hori gutxiesteko jarrera hartu dute, oposizioari oposizioa egitekoa».

Aipatutako elkarlan eza medio, benetako adostasunerako, borondatea eta elkarlana nahitaezkoak direla aldarrikatu dute. «Ez gaude batere ados lan egiteko udal gobernuak duen moduarekin. Are gutxiago informazio asko eta asko hedabide zein sare sozialetatik jasotzen dugun bitartean. Udal politiketan gure alea jarri nahi dugunez, ezinbestekoa da haiek gu entzutea. Ondorioz, 2021ean, udal gobernuak jarrera aldatu eta plana kontuan hartuko duenaren esperantza dugu. Herritarren onerako izango da».

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburrak.eus-en

Tolosatzen Eskola Irekia emozioei begira

Tolosatzen proiektuaren barruko egitasmoaren apirilera bitarteko egitaraua aurkeztu du Tolosako Udalak

Erredakzioa Tolosa

Tolosako Udalak gobernantza eta partaidetzaren esparruan abiarazitako Tolosatzen proiektuak beste urrats bat eman du. Orain arte hiru lan lerro abiarazi ditu (Tolosatzen aurrekontuak, Tolosatzen Aliantza eta Tolosatzen Eskola Irekia) eta Eskola Irekiari lotutako apirilera bitarteko egitaraua aurkeztu berri du.

EMOZIOEN GIMNASIOA

Otsailaren 17tik ekainaren 9ra Emozioen Gimnasioa bezala izendatu duten 8 tailerrez osatutako zikloa eskainiko dute; *Emozioak buruan eta ibili munduan* (otsailak 17 arratsalde eta otsailak 18 goizez), *Bakarkako entrenamendua I* (martxoak 3), *Bakarkako entrenamendua II* (martxoak 17), *Taldeko entrenamendua I* (apirilak 14), *Taldeko entrenamendua II* (apirilak 28), *Taldeko entrenamendua III* (maiatzak 12), *Taldeko entrenamendua IV* (maiatzak 26) eta *Taldeko entrenamendua V* (ekainak 9). Zikloak hainbat helburu izango ditu, tartean arlo emozionalaren garrantziaz ohartzea, garunaren funtzionamendua ulertzea eta norbere emozioak zein besteen emozioak identifikatzea. Saiok hamabostean behin izango

dira, 10:30etik 12:30era (gaztelaniaz) eta 17:30etik 19:30era (euskaraz). Gehienez ere 20 pertsonarentzat lekua egongo da, eta beraz, parte hartzeko aurrez eman beharko da izena udaletxean.

‘ARRASTOAN’ TAILERRA

Otsailaren 18tik 26ra *Arrastoan* tailer didaktikoa eskainiko diete Tolosako hiru ikastetxeetako LH6ko ikasleei. *Arrastoan* dokumentalean oinarritutako saio didaktikoa izango da, herria eta lurraldearen ezagutza ardatz duen lan lerroaren barruan.

Eskuaire elkartearen eskutik zeinu hizkuntza eta Tik-Tok sare sozialari buruzko tailerra ere egingo dute gazte topaguneko gazteekin.

Eskola Irekiaren ikasturteko lehen epealdiko ekintzekin bukatzeko, apirilean, udal sail desberdinek udal diru laguntza lerroak elkarteei aurkezteko saio berezia egingo dute. Herria ezagutzeko lan lerroaren barruan, diru laguntzen alorra herri elkarteei eta eragileei aurkezteko saio berezia izango dela dio udalak.

Udalaren eta herritarren arteko harremanak estutzeko, komunikazio bideak sendotzeko eta herritarren iritzia jasotzeko lanaren barruan kokatu dute Tolosatzen Eskola Irekia.

Eraso matxista baten berri eman du Zizurkilgo Udalak

ZIZURKIL // Herrian gertatutako eraso matxista baten berri izan eta gero, udalbatzako talde guztien babesarekin, adierazpena onartu du udalak. Adierazpenean Zizurkilgo Udalak dio indarkeria matxista kasu guztiak erabat arbuiatu eta gaitzesten di-tuela eta elkartasuna adierazten dio eraso jasandako emakume orori. Bide batez, Zizurkilgo Udalak konpromiso «irmoa» hartu du genero-indarkeriaren aurka borrokatzeko.



ATARIA

«Egokia litzateke eskola orduetan arnasmuguneak sortzea»

ESTITXU URIBEETXEBERRIA FISIOTERAPEUTA

Maskararen erabilerak sortu ahal dituen kalteak ekiditeko tailerra eskainiko du bihar, Tolosako kultur etxean; umeein egin ahal izateko ariketak proposatuko ditu

Leyre Carrasco Tolosa

Estitxu Uribeetxeberría fisioterapeutak, Altzoan guraso elkar-teak antolatuta, arnasketa tailerra eskainiko du bihar, osteguna, Tolosako kultur etxean, 18:30etik aurrera.

Maskararen erabilerak sortu ditzakeen kalteak ekiditeko tailerra izango dela dio eta ondoren umeein egiteko ariketak eskainiko ditu. Aforoa mugatua denez izena aurrez eman behar da gurealtzoan@gmail.com helbidera idatziz edo 695 731 982 telefono zenbakira deituz. Komeni da bertara gerturatzen diren guztiek estera edo manta txiki bat eramatea.

Zertan oinarritzen da bihar eskainiko duzun arnasketa tailerra?

Arnasketa ikastaro hau oso praktikoa da. Bere helburua bereziki irakasleek eta gurasoek arnaske-

ta ariketa sinple batzuk ikastea da, gero arnasketa ariketa horiek euren ikasleekin edo seme-alabekin etxean egin ahal izateko. **Zeintzuk dira maskarak sortu ditzakeen kalteak?**

Ni horretan ez naiz aditua, eta ez da erraza zehatz-mehatz hori jakitea. Azken finean, bertan aldagai asko daude eta pertsona bakoitzaren eragina desberdina da. Kontuan hartu behar da bakoitzak duen arnasteko era, pertsona bakoitzak zenbat orduz erabiltzen duen maskara, bakoitzaren estres maila, zenbat ordu egiten duen lo, eta abar. Maskara oztopo fisiko bat da eta umeein eskoletan ordu asko ematen dituzte maskararekin, eta horrek ez die uzten arnasa ondo hartzen. Oxigenazioa gutxitzea eragiten du eta buruko minak bezalako sintomak ere agertu ohi dira horren eraginez. Bestalde, bizitzen ari garen egoera dela eta,

gure estres maila, antsietatea, urduritasuna eta beldurra bezalako faktoreak igo egin dira eta arnas ariketa hauek lasaitzen laguntzen dute. Horretarako ere onuragarriak direla uste dut.

Tailerrak hortaz, horretan lagunduko du, arnasketa modu lasaian egiten.

Arnas ariketak beti dira onak, edozein egoeratan. Altzoan Elkarteko guraso batzuk maskararen erabilerak euren seme-alabengan sortu ahal dituen eraginen inguruan jabetu ziren, eta orduan bururatu zitzaigun horren inguruko ikastaro bat antolatzea. Hain zuzen, honen eragina ekiditeko eta nolabait konpentsatzeko. Hortik sortu zen ikastaro honen ideia. Nik aurretik ez nuen ikastaro hau ematen, euren eskakizun zehatzari erantzunez sortu zen. Momentu honetan tailer hau oso positiboa eta beharrezkoa dela uste dut.

Eta zer gehiago egin daiteke maskararen eragozpenei aurre egiteko?

Batetik, umeen kasuan, eskola kanpoko orduetan jenderik ez dagoen tokietara joaten, naturara, eta bertan maskara gabe jolastuz eta arnastuz, eta bestetik, eskola orduetan arnasketa tailerrak eskainiz. Tolosako bi eskolarekin lotu dugu ikastaro hau, zentzu horretan. Eskola orduetan arnasmuguneak sortzea egokia litzateke ere. Badakit eskola batzuek jada egiten dutela, ez dakidana da zein neurrietan eta nola egingo duten, baina eskola orduetan arnasketa ariketak egiteko tarte batzuk hartzea egokia litzateke. Betiere distantziak mantenduz eta gelatik kanpo bada askoz hobeto. Emozioek ere beti laguntzen dute; pozik, zoriontsu eta maitatuak sentitzen garenean hobeto arnasten dugu. Egoera emozionala zaintzeak maskarak sortzen duen kaltea ekiditen laguntzen du. **Umeein egin ahal izateko ariketak direla adierazi duzu. Ze ariketa egingo dituzue tailer-rean?**

Arnas ariketa multzo bat da, gu-txi gorabehera 15 edo 18 ariketa desberdin egingo dira. Ariketa gehienak *Yoga*, *Taichi*, *bihotzkoherentzia* izena duen beste mugimendu batekoak dira, eta bestelako batzuk ere egingo ditugu. Horiekin guztiekin poltsatxo bat bezala sortu dut, non irakasle eta guraso bakoitzak bere umeen adina, izaera, eta orokorrean, taldeen ezaugarriak kontuan hartu eta horietara moldatuko dituzten. Hainbat arnas ariketa dira, egoera desberdinetan modu errazean egin ahal direnak.

22

POSITIBO BERRI

13.715 test diagnostiko egin zizutzen herenegun, eta horietatik 1.101 izan dira positibo (%8). Horietatik 331 Gipuzkoan atzeman dituzte eta 22 Tolosaldean; Tolosan 12, Anoeta eta Iruran hiruna, Zizurkil 2 eta Amezketan zein Ibarran bana. Intzidentzia tasei dagokienez, Tolosak eremu gorrian jarraitzen du 628,87ko tasarekin eta Amasa-Villabona larranjara pasa da; azken 24 orduetan ez du positiborik izan eta bere tasa 456,31koa da.

Adunan kokatuko du Elkar taldeak bere egoitza nagusia

Unipapel enpresa zegoen pabiloia erosi du eta zerbitzu zentral guztiak kokatuko ditu bertan, banaketa eta argitaletxea. Aurki hasiko dira egokitzen ari diren

Erredakzioa Aduna

Elkar Fundazioak Adunan kokatuko du bere egoitza nagusia 2021ean zehar. Unipapel enpresa zena erosi du eta aurki hasiko dira pabiloia egokitzeko lanekin. Udatik aurrera bertan kokatzeko asmoa du taldeak. «Eta espero dugu urte beteko epean izatea egoitza bere osotasunean martxan, Elkar-ek dituen lan eremu guztiak bertan kokatuta». Hau da, egoitza nagusiaren barruan zerbitzu zentral guztiak izango dira Adunan, logistika eta biltegia barnebiltzen dituen banaketa saila eta baita argitaletxearen zerbitzu guztiak ere. «Inoiz baino gehiago, euskararekin, euskal kulturarekin eta Euskal Herriarekin duen konpromisoari eusteko beharra du Elkar-ek garai zail hauetan».

Izan ere, egoitza nagusia Usurbilgo Michelin enpresarenak ziren lurretan ziren kokatzekoak, baina COVID-19ak sortutako pandemiak proiektua gelditzera eraman ditu eta «inbertsio txikiagoa behar duen beste planteamendu bat egitera». 2017tik aritu dira egungo beharrei erantzuneko dien egoitza baten bila, «hartu dituen eginkizun eta lanei behar bezala erantzun ahal izateko», baina 2020ko martxoan erabaki hori birplanteatu behar izan zuten. «Ez da Elkar-en gustuko erabakia izan, ez horixe, taldeak ikusten baitzuen Usurbilen zuela bere beharretara propio egokitu-ta egoitza eraikitzeak aukera. Baina une honetako egoerak en-



Adunako industrialdean egongo da kokatuta Elkar taldearen egoitza nagusia. Argazkian, lantegiaren ikuspegi nagusia. J.M.

presa behartzen du baliabideak neurritz erabiltzera, ziurtatu behar baitu hurrengo urteetan bere jarduerak jarraituko duela eta lanpostuei eusteko gaitasuna izango duela».

JAKA ANAIK

Elkarrek gogoratu du 50 urtetik gora direla Jaka anaiak etxetik liburuak saltzeari ekin ziotenetik. «Hantxe dugu gaur egungo Elkar Fundazioa denaren sorburua. Etxetik etxeko salmentatik abiatuta, Baionan sortutako Elkar (Euskal Liburu eta Kantuen Argitaldaria) argitaletxea etorri zen ondoren, eta liburu-dendak

eta banaketa martxan jarri ziren atzetik. Urrats haietatik joan da eratzen Elkar, zeina Euskal kulturako kultur eragile esanguratsuenetakoa den gaur egun, beti ere liburuaren eta musikaren eremuan kokatuta». «Testuinguru horretan, eta liburugintzak bizi duen aldaketa azkar eta etengabeko garaiotan, Espainiako estatuko liburu banatzaile independente nagusietakoa izateko apustua egin du azken urteetan, horrek ziurtatuko duelakoan Euskal Herriko egiturei eta lanpostuei eustea. Euskal Herrian ez ezik, Espainiako estatu osoan banaketa egiteko moduko azpiegi-

tura eratu du Elkar taldeak», gaineratu dute.

ADUNAKO UDALA POZIK

Haizpea industrialdean egongo da kokatuta Elkar taldearen egoitza nagusia eta horrek herriari ekarriko dion onuraz hitz egin du Josu Amilibia Adunako alkateak: «Hutsik dagoen horrelako azpiegitura bat betetzea beti da berri ona eta are albiste pozgarriagoa da jakinik bertako enpresa batek hartuko duela, bertako batek eta gainera kulturagintzan ari den batek». Alkateak esan du aurrera begira udaletik laguntza eskaintzeko prest izango direla.

Ahalduntze ikastaroak jarri nahi dituzte martxan

ANOETA // Herriko emakumei lau ikastaroetan parte hartzeko eskaintza egin die Anoetako Udalak. Euskaraz emango dituzte emozioen kudeaketari buruzkoa eta sormena lantzeko saioa. Pepa Rojok, berriz, gaztelaniaz emango ditu menopausiari buruzkoa eta mindfulness ikastaroa. Izena eman daiteke otsailaren 1era arte, liburutegian, edo bestela emailez, kultura@anoeta.eus helbidean.

Alkizan zehar bisita birtuala egiteko aukera dago

ALKIZA // 2020. urteko Sormena-aren Kabia Beka irabazi zuen artistetako bat da Idoia Unzurrunzaga. Argazkilaria donostiarra hiru asteko egonaldia egin zuen Alkizan. Herriko bost auzotako bizilagunekin Alkizako hainbat txoko bisitatu zituen. Herritarrek lurraldearekin duten loturaz gogoeta egin eta herrian zehar bisita birtualak sortu ditu. Emaita ikusgai dago <https://fagus-alkiza.eus> helbidean.

Batzarkide kargua hartu du EH Bilduko Unai Iraolak

ALEGIA // Jon Zulueta andoaindarrak arrazoi pertsonalengatik bere batzarkide akta uztea erabaki ondoren, Oriako barrutiko hurrengo zerrenda kide gisa, Unai Iraola alegiarrak hartu du bere tokia Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Atzo hartu zuen kargua. «Ustekabean baina gogotsu hartuko dut lan berria», adierazi du Iraolak eta gaineratu du: «Bizitzen ari garen uneak guztion onena ematea eskatzen du eta horretarako prestutasun osoa daukat».



Aurrematrikulazio
epea zabalik
Urtarrilaren 18tik 29ra

Aiztondoko
eskola
publikoa



Lan istripuak, urtero errepikatzen den «drama»

Urtea hasi eta lan istripuz hildako bigarren heriotzaren aurrean, administrazioak neurririk ez duela hartzen eta hildakoen zerrenda areagotuz doala salatu du LABek

Eneritz Maiz Etxarri

LAB sindikatuak 2021. urtean ere lan istripuen gaia mahai gainean jarri nahi du. Urtea hasi eta dagoeneko bi hildako izan direla salatu du: «Esan gabe doa 2020ak utzi duena ez dugula hamarkadetan ahaztuko, baina ezin dugu onartu egoera honek bizitzaren gainontzeko atal guztiak estali eta bigarren edo hirugarren plano batean jartzea».

Urtez urte errepikatzen den «drama» dela dio lan istripuena; «badirudi, gizarte bezala, besterik gabe barneratuta dugula». Pasa den ostiralean izan zen urteko bigarren lan istripu hilgarria. 54 urteko gizonezkoa Lizartza Basalan Arrospide enpresako langilea zen, eta basolanetan ari zela hil zen.

2020 urtera begiratu gero, Hego Euskal Herrian lan istripuz 71 langile hil zirela ekarri du gogora LAB sindikatuak, eta batek desagertuta jarraitzen duela. Aldiz, 2019an, lan istripuz hildakoak 46 izan ziren.

Prebentzio legea argitaratu eta 25 urte geroago, «sistema sozioekonomikoaren krisi estruktural honek, herritarroiek prekaritatea

besterik ez digu eskaintzen, zifra beldurgarriak sortaraziz».

Patronalaren aliatu nagusia prekaritatea dela salatu dute; «epe motzeko irabaziei begira, segurtasun neurriak ez betetzea eta langileei geure eskubideen betearaztea oztopatzeko», esan du sindikatu abertzaleak. «Egoera sozioekonomiko latz honetan, langile askok bigarren plano batean uzten du bere osasuna kaleratua izateko beldurragatik», gaineratu du.

Heriotza eragiten duten lan istripuak «izebergaren punta» soilik direla nabarmendu du LABek: «Istripu bat ematen denerako, hamaika intzidente edo potentzialki istripu larriak izan zitezkeenak ematen dira».

1995. urtean ikusi zuen argia Hego Euskal Herriko lau probintzietan, estatu mailakoa den Laneko arriskuen prebentziorako legeak. Harrezkero, legeak aldaketa batzuk jasan ditu «eraginkorragoa» izan zedin. Baina denborak eta datuek erakutsi digute ez dela inondik inora helburua lortu», dio, LABek.

Hasieratik laneko segurtasunaren «merkantilizazioa» eman zela azaldu du sindikatuak, «pre-



Iazko ekainean Iruran lan istripua salatzen egin zen elkarretaratzea. A. IMAZ

71

LANGILE HIL DIRA 2020AN

LAB sindikatuaren arabera, Hego Euskal Herrian, 2020. urtean 71 langile hil ziren lan istripuz, eta batek oraindik desagertuta jarraitzen du. Erreferentzia moduan, 2019an, 46 langile hil ziren lan istripuz.

bentzioa enpresa pribatuen eskutik utziz». 2005ean areagotu egin zela argitu du, «mutualitateetatik eratorritako prebentzio zerbitzuen segregazioa behartuz, konpetentzia librean mesedetan». Prebentzio zerbitzuak enpresa pribatu diren heinean, «helburua mozkinetan eta etekin ekonomikoetan dago, lan segurtasuna beste plano batean utziz», azpimarratzen dute.

NEURRIK EZ

«Urtero errepikatzen den egoera honen aurrean», administrazioak ez duela neurririk hartzen dio sindikatuak. Aldiz, «sarri ikusten ditugu poliziak piketeak egurtzen edo herri mugimenduaren aurka jarduten, eta epaitegiak ere horretarako erabiltzen».

Kontrara, administrazioak «prekarietateaz baliaturiko enpresek sortutako hildako zerrenda luzean» eragiteko ez duela ez poliziarik, ez inspektziorik, ez epailerik, ez inongo baliabiderik jartzen gaitzetsi du sindikatuak, eta bitartean «hildakoen zerrenda urtetik urtera areagotuz doa».

Ez dela kasualitatea istripu gehienak azpikontratetan eta baldintza okerrenetan dauden langile kolektiboetan ematea adierazi du LABek. Eta, hori, sistema honen eta agintarien erabaki politiko bat dela diote, «ahulenei inork egin nahi ez di-tuen lanak eginaraziz».

ERANTZUTEKO BEHARRA

Gizartearengana, hau da, langileengana zuzendu da sindikatuak: «Alferrik da, gizarte bezala ez badugu barneratzen osasun bermeak eskaintzen dituen lanpostuak direla onargarriak diren bakarrak».

LABek argi du langileria antolaturik dagoen eremuetan prekarietateari «modu eraginkorrean» ekiten zaiola, eta istripuetan ere emaitza kuantitatiboa duela. «Gainera, eremu horietan azpikontratentzako lanean dihardu-

ELKARRETARATZEA GAUR, LAN ISTIPU HILGARRIA SALATZEKO

ELA, LAB, ESK, EHNE, Steilas eta Hiru sindikatuak elkarretaratzea deitua dute gaurko, 12:00etan, joan den ostiralean Ezkion gertatutako lan istripua salatzen. Ezkioko plazan izango da. Ostiralean Lizartza Basalan Arrospide enpresako 54 urteko langilea hil zen, Ezkion basolanak egiten ari zela larri zauritu ostean. Lanean ari zela zuhaitz baten adarra gainera erori zitzaion.

LABek basogintza sektoreko lan istripuen tasa altua nabarmendu du: «Langileek lan desberdin asko egiten dituzte, askotan bakarrik, zenbaitetan lan gogorak eta neket-suak, orografia berezian lan egiten dute, zarata pairatzen dute, estres termikoa, makinaria askotarikoa erabiltzen dute eta horrek sektoreko ezbehar tasa altuari eragiten dio».

ten kideekiko elkartasunak eta elkarlanak ere segurtasun neurriak betearaztean isla du, eta hortik neurgarria da istripuen beherakada».

Langileek, lan segurtasuna, klase gai bezala hartu behar dutela dio: «Ezin diegu patronalari eta prebentzio zerbitzu pribatuei utzi geure segurtasunaren bermatzaileak izaten. Gai honetan ere geure buruaren jabe izateak eramango gaitu etorkizun hobeago batera». Bien bitartean, «egungo legea betearaztea exijitzea dagokigu».

Fokua administrazioan jarri du sindikatuak: «prestakuntza teknikodun ikuskatzaile andana behar da araua betearazteko. Zer esanik ez dago, ikuskatzaileek nahikoa eskumen izan behar dute euren lana burutu ahal izateko, eta ez, adibidez, egungo Osalanen aholkularitza profil sinbolikoa».

AURREMATRIKULA
IREKIA
URTARRILAREN
18TIK 29RA



ikastolak
hezkuntza
eraldatzen



Lanuzteak egiten ari dira Haurreskolak partzuergoan

Bigarren greba eguna dute gaur Haurreskolen partzuergoan; otsailaren 22rako, 23rako eta 24rako ere lanuzteetara deitu dute LAB, Steilas eta ELAk

Irati Saizar Artola

Haurreskolak partzuergoko sindikatuek mobilizazioekin eta greba egunekin jarraitzen dute. Astelehenean izan zuten lehen greba eguna eta gaur izango dute bigarrena. Otsailaren 22rako, 23rako eta 24rako ere lanuzteak deitu dituzte.

Honako eskaerak ari dira egiten azken egunotan lanuzteekin: Haurreskolak partzuergoaren doakotasuna eta Eusko Jaurleri-

tzako Hezkuntza Sailean integratzea, akordioak errespetatzea eta betetzea, lan hitzarmen berria negoziatzen hastea, lanpostuak egonkortzea, Haurreskolak partzuergoko langileei ere Osakidetza Norbera Babesteko Ekipamenduak ematea eta aurrekontua handitzea.

«Argi utzi nahi dugu jarraituko dugula urteetan Haurreskolak partzuergoan lortutako hezkuntza kalitatearen defentsan egin-dako lanarekin eta langileak mo-

bilizazioen bidez lortutako lan baldintzen hobekuntzen defentsan», ziurtatu dute LAB, Steilas eta ELA sindikatuek. Era berean, haurreskolen etorkizunaren inguruan «argi hitz egiteko» eskatu diote Hezkuntza Sailari.

GARRAIOA ETA JANGELA

Bestalde, ELAk jangeletako eta eskola garraioko langileak grebara deitu ditu gaur eta bihar, Hezkuntza Sailak kolektibo horien «eguneroko arazoak tratatzeko,



Otsailaren 22tik 24ra ere greba deitu dute partzuergoko sindikatuek. N.R.A.

negoziatzeko eta konpontzeko borondaterik ez duelako, eta ez dituelako zerbitzuko eskaintza, segurtasuna eta lan-baldintzak eta enplegua bermatzeko neurriak hartzen».

Sindikatuaren arabera, urtarilaren 11n Hezkuntza Sailarekin izan zuten bileraren ostean, Jaurlaritzak jangelen eta garraio zerbitzuen «benetako apustua egiaztatzen duten datuak eman gabe jarraitzen du». Gainera, zerbitzu «osagarritzat» hartu ditu,

eskaintzaren, mantentzearen edo ordutegien erantzukizuna ikastetxeetako zuzendaritzari eta Ordezkaritza Organo Gore-nari utziz.

Jantokien kasuan, iazko ikas-turtetik 17 mila mahaikide gutxiago hartu dituztela esan du ELAk, eta horren ondorioz, aldi baterako enplegua «suntsitu» dela. Eta eskola garraioan ez dela inolako neurririk hartu ere salatu dute, eta esan dute protokolorik ere ez dutela.

«Ezjakintasun horretan ezin dugu jarraitu, informazioa nahi dugu»

AINIZE LASA OIARTZABAL HEZITZAILEA

A. Imaz / I. Saizar Amezketak

Amezketako haurreskolan ordezkapena egitea egokitu zaio Ainize Lasa Oiartzabali. LAB sindikatuko ordezkaria ere bada, eta gertutik bizi du egoera.

Nola iritsi zarete egoera honetara?

2018an langileen aldeko akordio batzuk lortu genituen, Haurreskolak partzuergoko langileen lan baldintzak arautzen zituenak. Ikusi dugu, ordea, gerentzia berriarekin ez direla betetzen ari. Ezjakintasuna izan dugu nagusi: ez genekien zer irizpide betetzen ziren ordezkapenak banatzerakoan, haurreskoletako lanpostu hutsak ez ziren ordezkatzek, eta aurtengo ikasturtean, egoera honetan gainera, ordezkapenak langile finkoak ari ziren betetzen. **Eta nola saiatu zarete egoerari buelta ematen?**

Mahai negoziatzaile batzuk zeu-

den martxan, akordioen jarraipena egiteko eta hobekuntza gehiago jorratzeko. Baina gertatu dena da mahai horietan ez dela negoziaketarik eman, gerentzia berria sartu zenetik aldebakarreko azalpenak soilik eman dituelako Zorione Etxezarraga gerenteak. Ez du zentzurik mahai negoziatzaile horrek, gure aldarrikapenak ez baitira lantzen. Guk ezjakintasun horretan ezin dugu jarraitu, informatuak izatea nahi dugu.

Zein egoeratan zaudete orain?

Gertatzen ari dena da zalantzan jartzen ari direla Haurreskolak partzuergoaren funtzioa. Erabaki baten berri ere ez digute ematen eta guztia zalantzan jarri dute.

Esan dute agian ez direla errentagarriak, eta gure ustez, hau ez da errentagarritasun kontu bat, zerbitzu publiko bat baita. Badakigu matrikulak jaitsi direla, baina horregatik behar dugu fundametzko diru partida bat Eusko Jaurlaritzatik. Doakotasuna eskatzen dugu, izan ere lana erraztu behar zaie familiei haurrak haurreskoletara eraman ditzaten.

Lan hitzarmen bat lortzea da helburuetako bat.

Mahai negoziatzaileen bidez hori zen helburua. Izan ere 2009tik berriro gabe daukagu hitzarmena. Urte asko eman ditugu borrokan, gauzak ordenatzen, hankaz gora zegoelako guztia.

Aurretik bilerak egin dituzue.

Mahai negoziatzaile batera deitu gintuzten hiru sindikatuak abenduaren 22an. Greba deialdietan guk eskatzen genituen puntu horien inguruan hitz egingo genuela uste genuen, eta sorpresaz, hitz egin zen gauza bakarra izan zen guk lortutako akordio guzti horiek ez zirela zuzendaritza batzordetik pasa eta existituko ez balira bezala zela. Guztia zalantza jartzen hasi ziren gainera; Haurreskola partzuergoaren izaera, haurreskolak ez direla hain beharrezkoak, herri txikietako haurreskolak defizitarioak direla... Kezkatzeko moduko egoera baten aurrean gaude.

Hilberriak eta urteurrenak



Lourdes Odria Agirre

Iñaki Dorronsoro 'Xanpardo' ren alarguna
Atzo hil zen, 87 urte zituela, Elizakoak
eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Elkarrekin igaro ditugu
horrenbeste urte
orain joan zera
gugandik aparte
zuk utzitako hutsunea
ezerk ezin du bete
Agur, amona maitea
hurongo bat arte

Etxekoak

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, ANDRA MARI ZERURATZEA parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik mila esker.

ZARAUTZEN, 2021eko urtarrilaren 27a
Oharra: Hilbeila ZARAUZKO Beilatokian egongo da
ASTEAZKENA 10:00-13:00 eta 16:00-18:00.

hilberriak • eskertzak • urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 110€ • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 64mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 € bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

Imanol Garcia Landa

Hard enduroko Espainiako Koparen lehen proba jokatu dute asteburuan La Bastida de Tost herrian (Lleida, Katalunia), eta eskualdeko lau moto gidarik parte hartu dute bertan. Maila nagusian, seniorretan, Josu Artola amezketarrak hirugarren eta Alberto Aranburu tolosarrak seigarren egin dute. Trofeo mailan, Andoni Elustondo tolosarra lehenengoa izan da seniorretan eta Jon Ander Rodriguez alegiarrak laugarren egin du master 35 kategorian.

Maila nagusikoek hiru orduko proba egin behar izan zuten, zirkuitu bati bueltak emanez. Larunbatean entrenamendu libre-ak egin zituzten, eta lortutako denboraren arabera atera ziren igandean egindako lasterketan. Artolak orain urtebete inguru parte hartu zuen azken proban eta ez zekien nolako maila emateko aukera izango zuen. Horrez gain, besoan arazoak izan ditu, eta asteburukoak bere burua nola zegoen ikusteko balio izan dio. «Ikusi dut azkenean txapelketaren borrokan egon ahal dudala eta gustura nago», esan du.

Amezketarra bigarren postutik 25 segundora geratu zen. «Bi edo hiru zati zeuden gakoak izan zirenak. 170 pilotu ginen eta pilaketak sortzen ziren. Erritmoa garrantzitsua zen baina nondik pasatu behar zen jakin behar zen», esan du Artolak. Probaren erdian gasolina botatzeko geratu zen eta itzuli horretan galdu zuen irabazteko aukera: «Hor tokatu zitzaizkidan pilaketak zati batean, nik huts bat egin nuen eta buelta horretan minutu eta erdi galdu nuen. Gero gerturatu nintzen baina ez nuen lortu bigarren egitea». Artola gustura dago berriro ere lehiatzen hasi direlako: «Aurreko urtean lasterketarik ez dugu ia korritu eta entrenatzeko motibazioa ezberdina da, ez duzu motibazio hori».

LASTERKETA GOGORRA

Bere aldetik, Aranburu erori egin zen entrenamendu libreetan, eta irteeran bigarren ilaran atera zen, lehen hamabost gidarietatik minutu batera. «Banekien lasterka oso gogorra izango zela, eta lasai atera nintzen», esan du Aranburuk. «Lehen trialera jende asko zegoen, tapoi moduko bat sortuz, baina ondo pasatu nuen hori. Hala ere, lehenengo lauak ordurako alde eginda zeuden eta beraiek harrapatzea dezente kostatu zitzaidan». Bigarren itzulirako seigarren jarri zen eta laugarren itzulian laugarren

Eskualdeko lau pilotu hard enduroko aurreneko postuetan

Espainiako Kopa jokatu da asteburuan, eta bertan parte hartu dute Josu Artolak, Alberto Aranburuk, Andoni Elustondok eta Jon Ander Rodriguezek



Andoni Elustondo, irudiaren erdian, sari banaketan. ATARIA



Ezkerretik hasita, Josu Artola eta Alberto Aranburu, maila nagusiko probaren une batean. MAIALEN IRURETAGOJENA/ATARIA

postuan zegoen. «Bederatzigarren itzulira arte podiuma hor gertu nuen, Josu hirugarren zihola. Baina azkeneko itzulirako oso nekatuta nengoen, aurrenekoak harrapatzeko egindako esfortzuagatik, akats bat egin nuen eta azkenean seigarren bukatu nuen».

Aranburu «oso gustura» gera-

tu da egindako lasterketarekin: «Ia urte erdi egon naiz lasterketarik egin gabe, eta oso gogorra egin zait entrenamendua eta lana uztartzea, eta motoan oso gutxi ibili naiz». Aurreko lasterketa irailean egin zuen, Turkian egin zen Munduko Txapelketako proba batean, seigarren amaituz.

Trofeo kategorian bi orduko proba zuten, zirkuitu bati itzuliak emanez ere. «Lehen aldia da Espainiako Kopa antolatzen dela, eta ez genekien nolako maila izango zen. Oso gustura nago lortutako emaitzarekin», esan du Elustondok. «Katalunian izan da, eta bertako jende asko zegoen, oso azkarra dena eta hango

lurretara ohituagoa dagoena. Guri ondo datorkigu teknikoagoa izatea, horrelako eremuak ere bazeuden, eta hortaz aprobe txatu ginen».

Larunbateko entrenamendu libreetan hirugarren egin zuen Elustondok, eta lasterketan lehen taldean atera ahal izan zuen. «Hasieratik hor egoteko aukera izan nuen eta azkenean lehen postua lortu nuen seniorretan. Banekien lehenengo nindoala eta helburua akatsik ez egitea zen», zehaztu du Elustondok.

Rodriguez berez motokroseko pilotua da, eta orain gutxi eskuratu du enduroan aritzeko motoa. «Proba hau egin eta gero gustua hartu diot eta asmoa dut aurrera begira horrelako probetan parte hartzeko», esan du Rodriguezek. «Hori bai, gehiago entrenatu beharko dut. Motokrosean abiadurak du garrantzi gehiago, enduroan, berriz, lasterketa luzeak dira, eta motoari lagundu egin behar izaten zaio aldapak igotzen. Motoak ere ezberdinak dira».

Probatzeko asmoz joan zen lasterketara Rodriguez, baina larunbateko entrenamendu libreetan ondo ikusi zuen bere burua, eta igandean bere mailan podiumeko postuetan sartzen saiatu zen, baina azkenean laugarren bukatu zuen. «Ez nintzen dena emanda joan lehiatzera, besteak beste, ez nengoelako prestatuta», esan du alegiarrak. Ikusita lagunak podiumera igo zirela, inbidia pixka bat ere izan zuela dio: «Nere buruarekin pixka bat pikatu nintzen. Gehiago entrenatzen badut baliteke master mailan podiumeko postuetan sartu ahal izatea».

KOPAN JARRAITZEKO ASMOZ

Aurrera begira, Espainiako Koparen beste probetan parte hartzeko asmoa dute lau pilotuek. Bestalde, Aranburuk datorren hilean Portugalen lehiatu nahi du muturreko enduroko proba batean, eta Munduko Txapelketako ahal duen proba gehienetan parte hartu nahi du, tartean Errumanian egiten den Romanians proba entzutetsuan. Azken hau da Artolarentzat helburu nagusia aurrean, eta horrez gain, Portugalen ere Munduko Txapelketako proba bat egin nahi du.

Bere aldetik Elustondok asmoa du Euskal Herriko lasterketan parte hartzeko eta Portugalen beste lasterketa batzuk egiteko. Rodriguezek enduroan jarraitzeaz gain, motokroseko Nafarroako Txapelketa egiteko asmoa du.



ASTEAZKENA, 2021EKO URTARRILAK 27
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baiarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania, Goltz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEAZKENA 27

AGENDA

Deialdiak

Tolosa. Industria 4.0 teknologia txertatuz jardunaldia, Lehiberrin, 12:00etan. Tolosaldeko zazpi enpresen proiektuak aurkeztuko dituzte.
Tolosa. Kukai dantza taldearen *Gaukoak* ikuskizuna, 19:00etan, Leidor aretoan.

Erakusketak

Tolosa. *Sorginak!* erakusketa Aranburu jauregian.
Tolosa. Argizaiola erakusketa Aranburu jauregian.
Tolosa. *Gizonak, emakumeak eta txotxongiloak*, Topic-en.
Zizurkil. *Munduari itzulia* erakusketa, Plazida Otaño liburutegian.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!
11:00. Musika zuzenean (Kantu es-kukadak eta Olatz Salvador)
11:30. Gaurkoan Tolosaldeko
17:00. Ane Lore sukaldean
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Urrutiajunbe (Ekirock)

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Magazina: Prensari begira, eguraldia, kolaboratzaileen tartekak...
15:00. Desafioa. Herri kirolak, Jose Angel Sarasolarekin.
16:00. Zebrabidea. Arroza sareko irratien artean eginiko magazina.
20:00. (H)ari naizela. Bertsolaritzari buruzko saioa, Imanol Artola *Felix*-ekin.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Ignacio Ola-rreaga Aramburu. Korreo kalea, 2. 943 67 0128
TOLOSA. Gaukoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro motela izango dugu gaurkoan. Goizean zerua estalirik egongo da eta euri zaparrada batzuk ere izango ditugu. Arratsaldean, berriz, pixkana euria gutxituz joango da, eta egun amaierarako aterti geratuko zaigu. Haizeak mendebaldetik joko du eta tenperatura maximoak beste koskatxo bat egingo du gora, maximoak 14-15 graduan kokatuko direlarik.

Bihar. Giro epela eta argia izango dugu. Egun osoan zehar goi-mailako hodei batzuk ikusiko ditugu, zeruari kolore zurixka emango diotelarik, baina ez dute bestelako ondorioz izango eta giro argia eta polita mantenduko da. Haizeak hego-mendebaldetik tarteka bizirik joko du eta tenperatura maximoek gora egingo dute berriro, 17-18 gradura iritsiko direlarik.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-en eta iritzien erantzukizunik.



'Munduari itzulia' erakusketan ikusi daitezkeen lanetako batzuk. JON MIRANDA

'Motxila Ibiltaria' ekimenaren barruan Plazida Otaño liburutegiak jarri ohi duen misioari erantzunez, umeei munduari itzulia emateko ibilgailuak egin dituzte; hilaren 30era arte izango dira ikusgai

Ibilgailu berezien egile

Jon Miranda Zizurkil

Plazida Otaño liburutegian *Motxila ibiltaria* ekimenaren barruan, misio bat osatzeko erronka izaten dute haurrek eta familiek. Irudime-nez betetako ibilgailu bereziak egitea zen azken misioa eta haurrek ez dute hutsik egin. Kolore, tamaina eta forma guztietako ibilgailu ikusgarriak egin dituzte.

Ohi bezala, ibilgailuekin osatutako erakusketa ikusgai jarri

dute Plazida Otaño liburutegiko erakusleihoan, eta larunbata bitarte bisitatu ahaliko da.

Bada, *Motxila ibiltaria* ekimenak ekin dio lehen hiru-hilekoari, eta motxila jasotzen duten haurrek beste misio bati egin beharko diote aurre. Oraingo honetan, Arantxa Zabala eta Irene Urruzola liburuzainek barazki eta frutak baliatuta ipuinetako pertsonaien erretratuak osatzea eta haiei argazkiak egitea proposatu dute. Errenazimenduko Arcimboldo pintore famatuaren bidea jarraituz, jasotako irudi guz-

tiekin erakusketa berri bat egingo dute Aiztondoko liburutegian.

Une honetan, beraz, ekimenean parte hartzen duten haur eta familiek eginiko ibilgailu bereziekin osatu dute erakusketa. Aiton-amonei ahozkoasunarekin lotutako ipuinen bat, kanturen bat edota esku jolasen bat kontatuz, bi zomororen nahasketatik sortzen den izaki berri bat asmatuz, munstroak eginez edota etxetxoak sortuz egin dituzten lanekin osatuak izan dira aurreko erakusketak.

harpidedun izateak badu saria

zozketa

1 ALBAOLA ITSAS KULTUR FAKTORIA

Familiarentzako sarrera (bi nagusi eta ume bat)

albaola.com • Pasai San Pedro • 943 39 24 26

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

2 EKAINBERRI museoa

Bi lagunentzako sarrera bikoitza

ekainberri.com • ZESTOA • 943 868811
info@ekainberri.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

Parte hartzeko deitu **902-82 02 40** / www.ataria.eus webgunean • urtarrilaren 15etik, 28ko 11:00ak arte.

zozketak

Atarikideentzat lau sarrera ditugu

Imanol Jazz kontzerturako bi sarrera.

Otsailak 3, 20:15, Leidor antzokia (Tolosa).

Konpromisoa antzezlanerako bi sarrera zozkatuko ditugu.

Urtarrilak 31, 19:00, Gurea antzokia (Villabona).

Zozketetan parte hartzeko **Osteguna 11:00ak** arte: **943 65 56 95** edo www.ataria.eus